

Berrigara

Santutxuko erromeria

Ermita berriro eraiki zuteneko 200.
urteurreneko ospakizunak maiatzaren 1ean



54 MINUTUTAN 365 EGUN KENDUKO DIZKIOGU GAINETIK ZURE AUTOARI

AUTOAREN LEHENENGO URTEKO EGUN GUZTIAK
PASATUKO DIRA 54 MINUTUTAN.
TARTE HORIXE BAITA LEHENENGO AZTERKETA
SAKON-SAKONETIK EGITEKO BEHARKO DUGUN
DENBORA, AURREZ ORDUA HARTUTA EDO HARTU GABE.
ETA HORI DA DOI-DOI GUK KOBRATUKO
DIZUGUNA. EZTA MINUTU BAT GEHIAGO ERE.
ZUK BADA KIZU ZER
TRATU EMATEN DIZUGUN. JAR EZAZU, BERAZ,
ZURE NISSAN-A ESKURIK ONENETAN. BERME ETA
KONFIANTZARIK HANDIENA EMANGO DIZUTEN
ESKUETAN. ZIUR AGINTZEN DIZUGU 54 MINUTU
BAKARRIK BEHARKO DITUGULA ZURE
NISSAN-AREN LEHENENGO URTEKO
AZTERKETA EGITEKO.

SEE THE CHANGE



ALDIBI AUTOAK, S.A.

Zigarrola Kalea, 1 - Tel. 943 71 20 02 - 20500 Arrasate



Bergarako eraikinen birziklatzea

Xabier Zabala / ikaslea

Azkenaldian Bergaran izandako proiektu eta aldaketak direla eta, hainbat alditan entzun dugu auditoriumari buruzko berriak. Seminarioko elizako proiektua atzeratu egin da orain gutxi. Aspaldi, auditoriuma beheko geltokiaren inguruan egin behar zutela komentatu zen, baina ametsa besterik ez, dena etxez bete baitute; auditoriumak ez du dirurik ematen, bai ordea etxebizitzek. Bergarako benetako auditoriuma orain ez asko bota zuten eta haren tokian, herrian biztanle-dentsitate handiena dagoen lekuan, etxe gehiago egin.

Bergarak duen musikarako zaletasunarekin, auditoriuma behar du, baina hainbat ekintza antolatzeke ere, baina non? Hortxe dago gakoa, Bergarak hain gustuko duen birziklatzea abian jartzen da. Seminarioan, eraikin ederra eta handia. Ez dut gaizki ikusten, auditoriuma egin daiteke, baina nire ustez, txikiegia. Gainera, Gabonetako kontzertua non egingo litzateke? Pilotalekuan edo auditorium berrian?

Liburutegia ere lekuz aldatu behar dutela entzun dugu, baina nora eta

oraingo antzeko eraikin batera. Hori egin aurretik ere, txiki geratuko da. Ez da hobe guztia zentralizatu eta Seminarioan auditoriuma egin behar bada, kultura etxe dezentea egitea behingoz? Liburutegia, musika eskola, museoa ere hor dago eta gaztetxea. Eta ez auditoriuma Seminarioan, liburutegia Espoioan, museoa Labegarietan...

Horra hor Antzuola: bere "Seminario" antzekoan kultura etxea egin behar dute. Ea adibideak Bergaran jarraitzen duen.

Kasualitatez, baina guztia batera atera da, geltokia ere atzera geratu da, kalkuluetan akats egin eta eraikina Urkuluko hodien gainean doa. Komisaria eta etxeak egiteko azkar mugitu dute hodia, geltokirako aldiz ezin da. Zerga-

tik ote?... Geltokia egin edo ez ere aztertzen ari dira. Nahiz eta Pesa ez egon, jendeak ateri egoteko eskubidea du.

Eskerrak igerilekuak berritzeko, zaharrek baliorik ez dutela konturatu direla, eta berriak, behintzat, bere egin-beharretarako pentsatuta egongo direla. Eraikinak birziklatzen, behintzat, Bergarak K kalitatea izango du, horra hor, bestela, kiroldegia, kultura etxea, auditorium berria, Labegarietako museo teorikoa, baita Seminariokoa ere... nahiz eta azkenaldian puntu asko galdu, geltokiarekin eta Labegarietako tximinia eta zubiekin. Konturatzen bazarete, Bergarako eraikin publiko berri bakarrak azoka (hasierako proiektutik asko aldatua) eta komisaria dira. Ez zegoen horiendako eraikin birziklagarririk?

Birziklatzea bai, baina ondo. Hobe da dirua hasieratik funtzio konkretu baterako eginiko eraikin batean gastatzea, beste batzuk moldatzea baino, bestela birziklaketa ez baita sekula amaitzen. Ikusi, bestela, kiroldegiko aldaketak. Zentraliza dezagun guztia eta birziklatu Seminarioa, herrian alde batetik bestera ibili beharrean.<

Eraikinak birziklatzen, behintzat, Bergarak K kalitatea izango du, horra hor, bestela, kiroldegia, kultura etxea, auditorium berria...

barruan



M. Arrizabalaga

Jarduneko presidentea

«Herritarrekin batera euskararen egoerari buelta ematen saiatuko gara»

6.



Luis Zabala

Zinezalia

«New Yorkera juan nahiko nuke, pelikuletan ikusitako tokixak bisitatzera»

19.



Julen Garitano

Antxintxika taldekoa

«Taldean giro ezin hobea daukagu eta horrek ere laguntzen du emaitza onak lortzeko»

20.

hi, gazte!



BEKAK

Prestakuntza. Eusko Jaurlaritzak. Beharrezkoa goi mailako unibertsitate titulua izatea; ingelesez ondo jakitea. Kanpo merkataritzako adituen prestakuntzarako 30 beka 2001erako. Epea: maiatzak 17.

JARDUERAK

Murgil zaitez 2001. Gipuzkoako Foru Aldundia. Trukaketak 14-17 urte bitartekoendako. Zazpi edo hamalau eguneko txandak (euskaraz eta gaztelaniaz): kirol ekintzak eta ingeles ikastaroa. Zozketarako izena ematea: gazte informazio gunea (Bergarako kultura etxea). Epea: apirilaren 25etik maiatzaren 7ra. Informazioa: 943 77 91 57/8.

Argazkia. Zarauzko Udala. 2001eko argazki jarduerak. Epea: maiatzak 13.

SARIAK

Portugaleteko jaietako kartelen lehiaketa: Roke Deuna 2001.

Portugaleteko Udala. Lanak honako ikurrizta edukiko dute: Portugalete, San Roque 2001 Roke Deuna. Epea: maiatzak 4.

Donostiako Aste Nagusirako kartel lehiaketa. Kultura eta Turismo Ekintzetxea. Bi modalitate: bata, abuztuaren 12tik 19ra izango den Aste Nagusiko kartelerako, eta bestea, Nazioarteko Suen lehiaketarako. Epea: maiatzak 10.

IKASTAROKAK

Langabeak. INEM. Donostia. Ikastaroak doan: Garraio planifikazioarako agentea; Salgai arriskutsuen garraioaren segurtasunerako kontseilaria. Epea: maiatzak 2.

LAN ESKAINTZAK

Gizarte laguntzailea. Irungo Udala. Gizarte laguntzaile titulua; 3. Hizkuntza eskakizuna. Administrazio bereziko erdi mailako teknikaria, gizarte laguntzaile lanpostua betetzeko oposizioak. Epea: maiatzak 2.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpevide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatzoz Gazte Informazio Gunea.


INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak. Telefonoa: 943 77 91 57. E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00. Larunbata: 09:30-13:30.

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresiei eskertuko genizuke **Gazte Informazio Gunea** igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazte-ei nahiz probintzia guztiko informazioa zabaltzeko. **Mila esker.**

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru



Bertan Bilbo!

Gauza txokante bat ikusten denean, ile berdeduna, adibidez, esan ohi dena.

hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre

	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Apirilak 19, eguena	10 °C	7 °C	16,6 l/m ²
Apirilak 20, egubakoitza	9 °C	3 °C	19,7 l/m ²
Apirilak 21, zapatua	11 °C	2 °C	5,3 l/m ²
Apirilak 22, domeka	13 °C	5 °C	17,5 l/m ²
Apirilak 23, astelehena	18 °C	11 °C	- l/m ²
Apirilak 24, martitzena	24 °C	11 °C	1,0 l/m ²
Apirilak 25, eguaztena	18 °C	6 °C	0,6 l/m ²

mezak

Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.

San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:15.

Sierbak

Lanegunak: 19:30.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:30.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

Labegarieta

Domekak: 11:00.

San Lorentzo

Zapatuak: 20:00.

Angiozar

Domekak: 11:00.

Monja Zaharrak

Domekak: 18:00.
Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

Mizpirualde

Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30.

Antzuola

Domekak: 09:00, 11:30.

Uzarraga

Domekak: 10:00.

urbanoa

San Lorentzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUAKITZA 27:

MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

ZAPATUA 28:

CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

DOMEKA 29:

CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

ASTELEHENA 30:

PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87

MARTITZENA 1:

GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05

EGUAZTENA 2:

ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

EGUENA 3:

MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15

OGIA

DOMEKA 29. Mizpildi

MARTITZENA 1. Ogizun

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46

Ertzaintza. 943 76 53 40

Osasun Etxea 943 76 24 40

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 49

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

Odol emaleak 943 76 16 24

Alkoholiko anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea 943 77 91 00

Antzuolako udaletxea 943 76 62 46

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultur Etxea 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Kiroldegia 943 76 56 41

Mizpirualde Egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 61

Idolaz 943 76 65 08

Jubilatuena Etxea. Bergara 943 76 21 40

Antzuolako jubilatuena elk. 943 76 62 71

Postetxea 943 76 26 85

Bedelkar 943 76 04 68

Akulu AEK 943 76 05 18

Udal euskaltegia 943 76 44 53

Bergarako notaritza 943 76 10 73

oharrak

■ **1965**ean jaiotakoen afaria maiatzaren 5ean Txarrantxan. Aurretik Pol-Polen elkartuko dira, 19:00etan. Izena ematea Etxagi, Pol-Pol edo Popis.

■ **Ipintza institutua.** Batxilergo etapari buruzko bilera informatiboa eguaztenean, maiatzak 3, 18:30ean. DBHko 4. mailan dauden Bergarako ikasle eta gurasoei zuzenduta.

■ **EAJ-EA.** Maiatzaren 13ko hauteskundeetan botoa postaz eman nahi dutenek Batzokira (asteburuan 9:00- 21:00) edo Alkartetxera (asteburuan 11:00-12:00 eta 17:00-20:00 eta zapatuetan 10:00-14:00) jo dezakete. Azken eguna: maiatzak 3. Zapatuan, hilak 28, Donostian izango den mitin-jaialdirako autobusa, 15:30ean frontoian. Izena ematea Batzokian eta Alkartetxean.

■ **EH.** Hauteskundeetan botoa postaz eman nahi dutenak Arrano zaharretik (Irizar kalea 2, lehen pisua) pasa daitezke, astelehenetik egubakoitzera, 11:00-13:00 eta 18:00-20:00.

■ **Bai Euskal Herriari** plataformak eskubide zibil eta politikoen gauzatzearen aldeko gonbitea luzatzen die herritar guztiei eguenean, maiatzak 3, kultura etxean, 20:00etan.

zorionak!



Ainhoa Agiriano
28an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jon Macias
28an 5 urte. Urte askotarako!
Etxekoak; batez ere, Anita, Arantxa eta Amaia.



Aitor Etxaniz
27an 9 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Jone Larrañaga
27an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Irati Sanz
28an 4 urte.
Urte askotarako!
Ibai eta gurasoak.



Lorea Palacios
3an 3 urte. Urte askotarako eta muxu handi bat, sorgintxo!
Etxekoak.



Olatz Guridi
27an 25 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta lehengusua.



Manex Larrañaga
3an 6 urte.
Urte askotarako!
Izar eta gurasoak.



Martin Azpiazu
1ean 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Miren Santa Cruz
29an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ane Sancho
27an 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Paul Azkargorta
30ean 5 urte.
Urte askotarako!
Etxeko denak.



Pilar Martinez
29an 68 urte.
Urte askotarako!
Seme-alabak eta bilobak.



Jon Ruiz de Eginola
28an 14 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Elene Etxaniz
29an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Pedro Rudolph Martin
27an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Maite.

jardunen agenda



■ **Topaguneko udalekuak 2001:** DBH 1. eta 2. mailakoei zuzenduta. Uztailaren 16tik 30era Ubidean. Informazioa emateko azken eguna maiatzaren 4a da.

Hurrengo alean, maiatzaren 4tik maiatzaren 10era bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu.



Estefania Abasolo
28an 89 urte.
Urte askotarako, amama!
Familiakoak.



Eneritz
27an 18 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.




Olatz Ibane
1ean 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Mireia.



Ane Lorea Larrañaga
28an 8 urte. Urte askotarako!
Aita, ama eta Ander.



Urteaga 9
Tf. 943 76 18 45



ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62



Elektrikako tresnak eta argiztapena
Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10



ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
☎ 943 76 59 54 BERGARA

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
☎ 943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

AZPEITXI
Jatetxea
Aranerreka 13 behea ☎ 943 76 55 00

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia
Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 666 517 295

Apirilaren 5etik, Jardunek Batzar Orokorra egin zuen egunetik, presidente berria du elkar-teak: Maider Arrizabalaga. 26 urte ditu, Nekazaritzako Ingeniaria da, eta bi urtez beteko du aipatutako kargua, Jose Angel Mikeori lekukoa hartuz.

G. Nola heldu zen Maider Jardunera?

E. Duela hiru urte hasi nintzen Jardunen, ikasketak amaitu ostean herrira itzultzean. Euskararen munduarekin beti egon naiz lotuta, eta, esan bezala, duela hiru urte Jardunen hasi nintzen, Kultura taldean.

Gabonen aurretik Zuzendaritza Batzordeko kide izateko proposamena egin zidaten, Arantxa Gardokik Kultura arduradun moduan utzitako lekua betetzeko.

Azkenik, Aste Santu aurretik, presidente izatea proposatu zidaten. Hasieran zalantza egon nintzen, ardura handia delako. Baina poliki-poliki aurrera noa.

G. Zein dira Jardunen proiektu aipagarrienak?

E. Hainbat. Batzuk epe motzera eta beste batzuk luzeagoan gauzatzen joango direnak. Gazte taldeari dagokionez, "Kuadrilategi" proiektua aipa daiteke. Bi ikasturte iraungo ditu eta lehen aldia da Jardunek horrelako proiektua martxan jarriko duena. Proiektuaren helburua zera da: koadriletan hizkuntza ohitura euskaraz izatea, edota euskaldunagoa izatea lortu nahi da.

Besterik ere baden arren, horixe aipatuko nuke gazteen arloari dagokionez.

Kultura taldeari dagokionez, berriz, ikastaroak antolatzen jarraituko dugu, betiere jendearen interesa duten gaiak eta, noski, euskaraz suspertuz gai konkretu

MAIDER ARRIZABALAGA

Jarduneko presidentea

«Herritarrekin batera euskararen egoerari buelta ematen saiatuko gara»



Maider Arrizabalaga bi urtez izango da Jarduneko presidente.

bakoitzean.

Formazio taldearen kasuan, langile eta bazkideei euskararen gaineko formazioa eskainiko zaie.

G. Eta epe luzera? Bazkide kanpaina ere martxan jartzekoak zarete.

E. Une honetan Jardunek hiru ardatz nagusitan dihardu lanean: haur eta gazte arloan, kultura sailean

«Goiena proiektua begi onez ikusten dut. Oso positiboa da. Bergaran ere GOITB ikustea lortu behar dugu, eta horretan saiatuko gara»

eta barne eta kanpo harremanetan. Horrela, epe luze-
ra begira esku artean dituen
baliabideak erabiliz hauek
sendotzen saiatuko gara.

Bazkide kanpainari dagokionez, bai, zabaltzear dago. Helburua da bazkide berriak lortzea eta lehendik daudenen parte hartze handiagoa lortzea, elkarte aberasteko asmoz.

G. Epe labur eta luzerako asmoak azaldu dizkiguzu, erronka nagusiak ere horiek direla esan daiteke?

E. Erronka nagusiak epe luzerako asmo bezala har litezke. Hiru aipatuko ditut: formazio eta sensibilizazio taldea indartzea eta zabaltzea, bazkide kualifikatuak izatea eta hauen aportazioarekin elkarte aberastea, eta normalizatorako bidean euskaldunon zereginak herrira zabaltzea.

G. Nola ikusten duzu euskararen egoera herriari?

E. Egoera eskasa da. Epaitegian euskararen presentzia minimoa da, eta dagoenetan kasuala da. Ambulatorioa, Osakidetza, urguzkiak, Korreos, irakaskuntzako hainbat arlo... Horietan guztietan gauza bera gertatzen da. Eta Bergaran %64 euskalduna izanik nola uler daiteke hori?

Jardunek herritarrekin batera egoerari buelta emateko saiakerak egingo ditu.

Orokorrean arlo gutxi daude erabat euskaldunduta. Hala ere badaude, ikasketak eta eskola kanpoko jarduerak batzuk. Bestalde, udala egiten ari den ahalegina ere hortxe dago. Baina arlo guztietan dago luzerako lana edo zeregina.

G. Zer deritzozu Goienari?

E. Oso positiboa. Baina Bergaran GOITB ikustea lortu behar dugu, eta horretan saiatuko gara.

Angiozarrera ibilaldia deitu du 'AHTa Gelditu! Elkarlanean' taldeak

Ibilaldi sinbolikoa izango da eta San Martin plazatik abiatuko da domekan

"AHTa Gelditu! Elkarlanean" Euskal Herriko hainbat taldek osatzen dute, eta Euskal Y-aren aurka elkarlanean aritzeko sortu da. Protesta ibilaldia egiteko Angiozar aukeratzeak oso arrazoi garbia dauka: Angiozar, eta oro har Debagoiena, euskal Y-ak gehien kaltetuko lukeen eskualdeetako bat da.

Datorren domekan, hilak 29, izango da ibilaldia. Goizeko 11:00etan aterako da San Martin plazatik, eta Angiozarren amaituko da. "AHTa Gelditu! Elkarlanean" taldea sortu berria da, eta aipatutakoa da antolatu duen lehenengo mobilizazioa.

Eusko Jaurlaritzak onartu du, dagoeneko, Trenbideen Lurralde Sektoreko Plana, eta baita Espainiako Gobernuak eraikuntza proiektuaren Ingurumen Kalteen Ebaluaketa ere.



Angiozarko bailara guztiz hondatuko litzateke AHT eginez gero.

ARTXIBOA

Proiektuan aurrez ikusi dutenez, Debagoienera kokatuko litzateke Euskal Y-aren lotura-gunea, Angiozarren hain zuzen, eta bertan ibilbidea erdibitu egingo litzateke: Bilbo eta Gasteizerako bi trenbidetan.

Bi trenbide horiek Udaltz mendian zehar egindako 10,5 kilometroko hiru tuncelik igaroko lirateke. AHTren aurkako taldearen arabera, horrek zera ekarriko

luke: lur multzo itzelen mugimenduak, indusketa ikaragarriak, mendi mozketak luzeak, lur betelanak, biaduktu handiak, harrobiak, tunel zabalak eta obra hondakindegia nonahi. Horrez guztiaz gain, inpaktu geologiko, hidrologiko eta soinuak oso handiak izango lirateke Bergara, Antzuola, Arrasate, Aramaio, Eskoria-tza eta Leintz-Gatzaga herrietan.

KALTETUENETAKOIA

Gauzak horrela, Debagoiena eskualde kaltetuenetakoa izanik, lehenengo mobilizazioa hemen egitea erabaki dute taldekoek. Eta, era berean, Angiozarren, bailarako tokirik naturalena izanda, zeharo hondatuta geratuko litzatekeelako aipatutako azpiegitura eraikiko balute.

Domekako ibilbidearen helburua, AHTren bideak gehien kaltetuko lukeen eremuak bat erakustea da. Gainera, giza katea egiteko asmoa ere azaldu dute, horren bidez, proiektuak ekarriko lukeen lur okupazio handia erakusteko.

Taldeak emandako datuen arabera, Euskal Y-a eraikiz gero, baso, zelai eta mendien 7 milioi metro kuadro galduko dira. Hiru mila milioi pezeta inbertitu beharko dira trenbide berriaren kilometro bakoitzean. Eta inpaktua izugarria izango da orokorrean.

Pasealeku berria trenbide zaharrean

Trenbide zaharreko pasealekuko obrak aurrera doaz. Beheko estaziotik Kataibiarainoko zatia hilabetetan itxita egon ondoren, dagoeneko ireki dute; duela hilabete inguru. Jadanik pasealekuaren zati bat asfaltatu dute. Zubia bera ere konpondu egingo dute, eta bidea Kataibiaraino asfaltatuko dute. Bestalde, farolak ere jarriko dituzte ibilbidean zehar. Gauzak horrela, ibilalditxoak egiteko pasealeku berria izango dugu hemendik denbora gutxira.



Aberri Eguneko EAJ-EAren jokaera salatu du EHk

Martitzenean eskaintako prentsaurrean, gogor salatu zuen EH taldeak Aberri Egunean Gobernu taldeak izandako jokabidea. Horrelaxe kontatu zuen EHko zinegotzi Jolanda Juaristik gertatutakoa: «Aberri Eguneko astean, EAJko Koldo Peireirarekin egon, eta udalak Aberri Eguna ospatzeko asmoa zuela esan zigun, baita manifestu bat irakurtzeko asmoa zutela ere. Manifestuaren kopia eskatu genion, eman zigun, irakurri eta ados azaldu ginen testuarekin. Eta ekitaldira hurbilduko ginela esan genion. Horrela, Martin Guridi eta neu udaletxean ginen Aberri Egunean. Ekitaldia baino zerbait lehenago heldu nintzen bertara, eta Koldo Peireira eta bertan ziren beste pertsona batzuekin egon nintzen berbetan. Balkoira atera eta Koldo Peireira manifestua irakurtzen hasi zenean zer, eta ez zela adostutakoa, beste bat baizik. Aurrez nirekin egon arren, ez zidan aldaketaren berri eman».

Gauzak horrela, asteleheneko osoko bilkuran salatu egin zuten gertakaria. Erantzun gisa, «guk izandako jarrera berarekin erantzun zigutela jaso genuen». Hori azaltzeko orduan, le-



Ehko kideek prentsaurrea eskaini zuten martitzenean azalpenak emateko.

henengo manifestu hura «gure Udalbiltzako zela, eta hori esateko gai ez ginela izan esan ziguten bilkuran». Horrela, Aberri Egun bezperan «euren Udalbiltzako» manifestua jaso eta azken hori irakurtzea erabaki zuten, Peireirak bilkuran azaldukoaren arabera.

Bestalde, azalpen hori egia ez dela uste dute EHkoek, dokumentua irakurritatik edukiz gero, EAJ-EAkoek jakingo zuketelako «zein Udalbiltzarena» zen.

HAUTESKUNDE KANPAINA

Hainbat ekitaldi antolatu ditu EHk: bihar, zapatua, jaima eta mahai informatiboak jarriko dituzte kalean eta Elorregi auzoan. 17:30ean, Gestorak deituta, manifestazio nazionala Donostian;

domekan, 11:00etan plaza-tik abiatuta, AHTren aurkako ibilaldira atxikitu dira. 18:30ean, plazatik abiatuta bizikleta martxa; maiatzaren 1ean, jaima eta mahai informatiboa jarriko dituzte Labegarrietan; hilaren 3an, Iñigo Elkorok hitzaldia eskainiko du, Kartzela Zaharrean, 19:00etan; hilaren 4an, «Panti eta Kanto 13 eta 14 urte espetxean, aski da!», ekitaldi politikoa eta manifestazioa plazan, 19:30ean. Hilaren 5ean, Martutenera martxa, 10:00etan autobusa. 18:00etan mitina Belodromoan. 21:30ean, herri afaria Artatsen. Hilaren 7an, hainbat urteko borrokaldia isladatzen duen «txapa» erakusketa Pol-Polen. Hilaren 11n, mitina San Martin plazan, 20:00etan.

Turismoak behera egin du nabarmen Aste Santuan

Aurten, 328 kontsul-ta jaso dituzte turismo bulegoan, iaz baino 155 gutxiago hain zuzen ere. Kontsul-ta horietatik, 87 bergarrek egin dituzte, eta 241 Bergararik kanpokoek. Kanpokoek ar-tean, kataluniarrek 28 egin dituzte, madrildarrek 15, Espainiako Estatu-tako beste herri batzuetakoek 31, eta atzerrikoek 64 (besteak beste, sei frantsesak eta bederatziti hegoamerikarrak).

Bisitaldi gidatuei dagokienez, 83 lagunek esku hartu dute, eta gut-tira, 15 egin dituzte, ha-malau gazteleraz eta bat frantsesez. Turismoak izan duen beherakada baina, ez da bakarrik Bergaran gertatu. Oro har, Euskal Herrian behera egin du.

Udako denboraldiari begira, ekainaren 15etik irailaren 30era izango da irekita bulegoa. Inoiz baino denbora luzeagoz, izan ere, aurreko urteetan, irailean, lehen astea bakarrik zegoen zabalik bulegoa. Hala ere, za-balpen horren iraupe-na beste urte batzuetan ere egingo duten ikus-tear dago. Batez ere egon den turismo jai-tsieragatik.

Garnish

Bitxitegia

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,

BIOTER produktuak,

haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29

Martina Maiz izena jarri diote hilerri pareko kaleari

Izen hori izango du aurrerantzean hilerrirako sarreran dagoen kaleak, udalbatzak asteleheneko osoko bilkuran onartutakoaren arabera. Kale horrek ez du izenik izan orain arte, eta ataririk ez dagoen arren, hainbat nahasmen sortzen zituen horrek. Martina Maiz deituko da hemendik aurrera. Martina Maiz (Beasain 1820 - Donostia 1891) Algodonera San Antonioko enpresaren jabe eta zuzendaria izan zen, bere senarra eta enpresaren sortzailea, Luis Blanc, 1877an hil zenetik, hain justu ere.

Horrez guztiaz gain, herriko Benefizentzia Etxea diruz lagundu zuen, eta



Mizpirualdeko eliza Maizek 1879an emandako diruz eraiki zuten.

1879an, Mizpirualdeko eliza eraikitzeke dirua eman zuen. Elizaren ateburuan plaka bat jarri zuten, eta oraindik ere bertan dago,

Maizen eskuzabaltasuna gogoratzeko. Gainera, han daude hilobiratuta Luis Blanc eta Martina Maiz senar-emazteak.

Zezen-plaza autobus geltokiaren ondoan

Horixe izango da zezen-plazaren kokalekua Pazkoetan, seguruenik. Bota berri duten Ibargaraiko etxebizitzak utzitako orubean kokatzeko asmoa dago. Horretarako han dagoen etxola bota beharko litzateke eta hori aztertzen dihardute. Autobus geltokia ez da beste toki batera eraman beharrik egongo. Zezen-plaza eta geltokia elkarren ondoan egongo dira, beraz.

Autobideari egindako alegazioa berretsi egin du udalak

Eibar-Gasteiz autobidearen proiektuari aurkeztutako alegazioetako bat berretsi zuen Udalak asteleheneko udalbatzan: Arrasate iparra-Bergara hegoa zatia egiteko proiektuari egindako alegazioa; hau da, Elorregi auzoari dagoen zatia buruz egindakoa. Arrazoa da, autopistarako sarreretako bat, Tavex enpresaren inguruan eraikiko dutela, eta horrek eremu hartan egin litezkeen industria hedapenak mugatuko dituela.

Santa Katalina baselizaren kanpoaldea jaso dute jada

Ermita itxura berreskuratu du berriro Santa Katalinak: eroritako paretak jaso dituzte eta teiltua ere egin diote. Paretetan harri originalak erabili dituzte; egurrezko euskarriek dagokienez, goiko habea eta kapirixoak, esaterako, ezin izan dituzte originalak erabili

hondatu egin zirelako. Hortaz, beste eliza edo ermita batzuetakoak izandakoak erabili dituzte, baselizaren itxura ahalik eta gutxien aldatzeko. Kanpoaldeari dagokionez, maiatzerako lehenengo fasea amaituta egongo da.

Barrualdearen kasuan,

bigarren fasea, oraindik ez dago aurrekontua onartuta. Fasearen proiektua baloratzen ari dira udalean, eta gero, Diputaziora bidaliko dute dirulaguntza eskuratzeko. Egurrezko zerua eta koroaren hainbat zati dira berreskuratzeko geratzen diren elementurik aipagarrienak.

LONBIDE
OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5
BERGARA
☎ 943 76 10 57



BANKINTER

%4,95 etik aurrera lehen 3 urteetan

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

*Irekiera komisioa: %0,25. 35 urte bilarteraino

Berrigara

449 zenbakia.
2001eko apirilaren 27a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Mireia Larrañaga.
Harpidetzak: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate, Gari Bragado.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate, M. Angel Elkoroberezar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
Komikiak: Peru Azkarate, Oihan Vega, Usoa Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mar Agirre, Juan Martin Elexpuru, Arantzu Oregi, Gorka Ortega.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara.

Tirada: 5.400 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

atrebentzia ezpada

Astelehenian liburuaren nazioarteko eguna izan zan. Badaukazu irakurtzeko ohiturarik?



Ramon Ambroy

Bai, irakurtzen dot, baiña liburuak ez hainbeste. Prentsa, berriz, egunero irakurtzen dot.



Agapita Loidi

Ez, egixa ez, ez dot asko irakurtzen. Batez be, aldizkarixak eta egunkarixak.



Jose Mari Manterola

Asko ez. Egunkarixa bai, egunero irakurtzen dot, baiña liburuak ez, hasittakua agudo bukatzia gustatzen jat-eta.



Maria Angeles Gil

Bai, irakurtzen dot, baiña oso gutxi, ez daukat-eta denporarik. Egunkarixa egunero irakurtzen dot, baiña literatura gutxi.



Francisco Morales

Gutxi. Lehen gehixago irakurtzen neban; lana dala-ta, denpora askorik be ez daukat. Irakurtzekotan, prentsa irakurtzen dot.




Gorka Alberdi

Ez, bapez, gaiñera. Noizian behin, neuri interesatzen jaten aldizkariren bat irakurtzen dot, baiña ostientzian, ezebez.

tira biraka oihan vega


Lehen, orain dela gutxi, autobus geltoki handi eta polit bat zegoen Bergaran.



Hura bota ostean, futbol jokariendako aulkiaren moduko bat jarri zuten.



Etorkizunean autobusak martxan hartzea proposatu dute. Kirola egin egin behar da, ezta?





**16 urtetik
aurrera**

- Integratzailea
- Euskalduna
- Anitza
- Doakoa

2001-2002 ikasturterako matrikulazio epeak

Batxilergoak: maiatzaren 2tik 11ra
Prestakuntza zikloak: ekainaren 1etik 12ra

IPINTZA

BATXILERGOAK (DBHO)

Boni Laskurain 17-19. Tel. 943 76 31 42 / 20 82

Ordutegia:

09:00etatik 13:00era eta 15:00etatik 17:00etara

M. ALTUNA

PRESTAKUNTZA ZIKLOAK (LH)

Ibargarai 1. Tel. 943 76 24 91 / 38 40

Ordutegia:

09:00etatik 13:00era



SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA

B e r g a r a k o i k a s t e t x e p u b l i k o a k

Landareak zaintzea

Etxe barruan jartzen ditugun landareak urte guztian eduki ditzakegu, hezetasuna eta tenperatura zaintzen baldin baditugu: 16-18 gradutik gorako tenperatura ondo bizi dira. Dena dela, barruan ondo bizi diren arren, ez dugu ahaztu behar barruko eta kanpoko landareez hitz egiten dugun arren, denak direla, berez, kanpoko landareak. Neguan, barruan edukitzean ditugun landareei oso ondo dator kie haizea hartzea, eta udaberri-uda aldean kanpora ateratzea, eguzki bariko egunetan. Zirimiria ere ondo dator kie, baina inola ere ez zaparradak.

Udaberrian, berriz, balkoi eta leihoetan jartzeko landararik egokienak geranioak, surfiniak eta petentak dira, besteak beste. Baita zuhaixka eta pinuak ere. Horiak, gainera, kanpoan jarri beharreko landareak dira, barruan ez dira gustura egoten. Lehenengo eta behin, garrantzitsua izaten da loreontzi egokian jartzea. Tamaina egokiko lore-




MARI CRUZ MAIZTEGI

Ninika loradendakoa

«Landarea maiztasun jakin batekin ureztatzea akats handia da; egarria daukanean eman behar zaio ura landareari»

ontzian jarri behar dugu landarea. Pinu eta zuhaixkendako, batik bat, loreontzi sakonak dira egokienak. Lurra denda espezialduetan erostea izaten da onena. Ongarriak ere garrantzitsuak dira, negurako batez ere. Xurgatze geldokoak dira, nire ustez, egokienak.

Landareak zaintzean, alderdirik garrantzitsuenetakoa ureztatzea da. Eta horrexetan egiten ditugu, gainera, akatsik handienak. Izan ere, jende askok maiztasun jakin batekin ureztatzen ditu landareak, eta hori akats handia da. Landareari egarria daukanean eman behar zaio ura. Nola antzeman egarria daukala? Alde batetik, itxuran igärtzen zaio pattaltzen hasita dagoela; bestetik, lurraren hezetasuna kontrolatuta. Bestalde, ureztatzen dugun bakoitzean ur gehiegi botatzeak ere kalte egiten die. Hobe da sarritan, baina ur gutxi botatzea. Egun beroetan, goizeko lehen orduan edo gauean ureztatu behar dira, bero egiten duenean ureztatuz gero, egosi egiten dira eta.



Egun beroetan, goizeko lehen orduan edo gauean ureztatu behar dira landareak.



Boni Laskurain 1970eko San Martinetan.

Boni Laskurain ibiltokia (I)

Boni Laskurain ibiltokia Oxirondo plazan hasten da. Norbaitek jakingo ez balu, Oxirondo plaza Santa Marinako eliza, herriko azoka eta bidea pasatuta dauden lehenengo bi etxeak dira. Beraz, Oxirondo plazan hasi eta San Lorentzoko zubiraino heltzen da. Bergarar askok hemendik paseatzen dute, laua eta atsegina delako.

Ibiltokiak eskuinetara bi atari baka rrik ditu: bia eta laua. Ezkerraldean, berriz, 1etik 25era arte iristen da. Hasierako etxebizitzak dira eraikuntzarik berrienak, eta 1986tik 1990era bitartean egin zituzten. Aurretik, gogoratuko duzue, Algodonerako kanala zegoen bertan, eta Guardia Zibilaren kuartela. Aurrerago aurkituko ditugun eraikin gehienak 70eko hamarkadan egin zituzten, herriko zerbitzuak hobetzeko: udal igerilekua, San Martin Agirre ikastetxe publikoa, jubilatuen egoitza, Ipintza institutua eta anbulatorioa. Migel Altuna institutu berria ere 1996 inguruan eraiki zuten.

Testua: Arantzazu Oregi, Udal artxibozaina.
Argazkia: BUAK utzia (Juan Idigoras fondoan).



Elikadura hizpide

Jardunek elikadurari buruzko ikastaroa antolatu du. Maiatzaren 9an hasiko da eta ekainaren 14an amaituko. Oraindik aukera daukatzue izena emateko maiatzaren 4ra arte. Ikastaroa **Amaia Diaz de Monasterioguren** dietalari oñatiarrak emango du. Hala ere, jontan den eguaztenean, ikastaroa hasi aurretik hortaz, hitzaldia egin zuen Amaiak. Proteinak, koipeak, hidratoak eta ahar izan zituen hizpide; horietatik izango dira ikastaroaren gaiak, besteak beste.

Erramu Domekako gurutzeak

Gotzon Barrenetxea-Arandok urteak daramatza gurutzeak egiten. Aste Santuan ohitura da erramuz apaindutako gurutzeak Erramu Domekan bedeinkatzera eramatea. Gotzonek gurutze ugari egiten ditu, eta herritar askori banatzen dizkio. Arantzazuko fraideei, mojei, gotzaiari eta apaizei ere ematen dizkie gurutzeak. Erramu Domeka bezperan atera zion **Juanito Idigorasek** honako argazki hau. Ikus dezakegun moduan, tamaina guztietako gurutzeak egiten ditu bere tailerrean Gotzonek. Autoan, etxean edo ortuan ere jartzen ditu jendeak bedeinkatutako gurutzeak.



Aritzeta Extremaduran

Abesbatzako kideak **Extremaduran** izan ziren Aste Santuan, hango hainbat abesbatzarekin egindako elkartrukearen barruan. Bi emanaldi eskaini zituzten, **Meridan eta Montijon**. Era berean, Guadalupe, Trujillo, Cáceres eta Mérida bisitatu zituzten. Meridako Teatro Erromatarrean ere abestu zuten Aritzetakoek (argazkian).



Ile apaintzaile bikaina

Gipuzkoako emakumezkoen ile apaindegien IX. txapelketan, bigarren saria eskuratu zuen **Maidar Azkarate** (argazkian) bergararrak, ikasleen artean. Ile apaintzaile abangoardistaren saria ere eman zioten. Maidarren ahizpa, **Iratxe**, arduratu zen makillajeaz. **Maite Maiztegi**, berriz, modelo lanetarako prestatu zen, eta Maidarrek eskerrak eman nahi dizkio. Maidarrek Zaragozako Romero zentroa ordezkatu zuen lehiaketa horretan.

Santutxu berriro eraiki zutela 200 urte

Hori dela eta, maiatzaren 1ean erromeria eta ospakizun bereziak egongo dira

Erromeriaz gain, herri bazkaria, bertsolariak eta dantzariak ere izango dira datorren martitzenean Santutxuko zelaian.

Elosuko Santutxu ermitan erromeria egingo dute datorren martitzenean, maiatzaren 1ean. Izan ere, 1794an frantsesek erre egin zuten, eta maiatzaren 2an 200 urte beteko dira, ermita berriro eraiki ondoren, lehenengo meza eman zutenetik. Denetariko ospakizunak egingo dituzte, eta urbanoa ere egongo da Elosura joateko eta bueltatzeko. Dena dela, jai hau aitzakia hartuta, Santutxu eta Elosuren historia eta ohiturak ere bildu ditugu erreportaje honen bitartez.

E lur Txiki elkartekoek, urteurrena ospatzeko, jai handia antolatzeko erabakia hartu zuten. Urte asko dira Santutxun, Santikutz bezala ere ezagutzen duguna, erromeriarik egiten ez zirela. Antzina *otabetan* izaten ziren jaiak Santutxun; hau da, Korpusaren oktabetan. Egun hori, Korpus egunaren hurrengo domekan izaten zen. Hurrengo egunean, berriz, *Otaba* txikiak ospatzen zituzten, umeen jaiak. Hala ere, auzotarrek diotenez, *otabak*, berez, Elosuko jaiak ziren, bertan izaten zen, adibidez, meza; baina erromeria beti egiten zuten Santutxun.

Beste bi jaiegun ere izaten ziren Santutxun: Santikutzetan, hain zuzen ere. Egutegian begiratzen badugu, Santikutzak urtean bi bider izaten direla ikusiko dugu: maiatzaren 3an eta irailaren 4an, hain justu. Elosuarrek bi egu-

nak ospatzen zituzten Santutxun edo Santikutzen. Hala ere, ez zuten erromeriarik egiten; meza bakarrik izaten zen, haziak bedeinkatzeko.

Aste Santuan ere izaten zen ospakizunik Elosun eta Santutxun. Ostiral Santu egunean gurutze-bidea egiten zuten. Elosuko San Andres parrokiatik Santutxuko ermitaraino. Garai baten, bidean zehar 14 gurutze zeuden. Gaur egun, Elosuko parrokiatik goraxeago dago gurutze bat, eta Santutxu aurreko zelaian beste hiru. Gainerako guztiak galduta daude. Gurutze-bide horretan parte hartzen zutenek, kandlekin egiten zuten bide osoa.

Bestalde, hitz egiten ikastea kostatzen zitzairen umeak Santutxuko ermitara eramateko ohitura ere bazegoen antzina. Amek eramaten zituzten haurrak, eta, otoitz egin eta limosna bat uzten zuten hantxe.

SANTUTXUK BADU HISTORIA

Santutxuri buruzko lehenengo erreferentzia 1585. urtekoa da. Idazki batzuetan azaltzen denez, Madalena Rinagak, hil zenean, bi erreal utzi zituen Santikutzeko baselizarentzat.

Santutxu edo Santikutzeko baseliza gaur egun kanpairik ez duen arren, 1670. urtean bat jarri zioten, dohainei esker. 1723. urtean hainbat lan egin zituzten baselizan: margotu, aldea konpondu, eta baita sabaia ere.

Baseliza honek limosnei esker iraun zuen, eta baita inguruko zuhaitzetatik ateratzen zuten egurraren salmentari esker ere.

Konbentzioko gerran erre egin zuten frantsesek. 1794. urtean izan zen hori, eta egitura bakarrik geratu zen, hormak eta teilatua, besterik ez. Garai hartan Elosuko apaiza zen Jose Martin Ansuategik bedeinkatu egin zuen base-

liza, profanatuta ei zegoelako. Behin berriztuta, 1801eko maiatzaren 2an eman zuten hantxe lehendabiziko meza. Eta horixe hain zuzen, ospatu nahi izan dute auzotarrek, eta zehatzago, Elur Txiki elkarteak. 1801. urte hartatik aurrera ere sarritan izan da berriztua ermita. Azkenengo aldiz, duela 15 bat urte, 1985ean, hain zuzen ere. Orduko hartan auzolanean konpondu zuten, eta auzotar askok hartu zuten parte.

XVIII. MENDEAN ERROMERIARIK EZ

XVIII. mendean, herriguneetatik urruti zeuden auzoetan hainbat neurri hartu zituzten, herritik aldentuta zeudelako, hain zuzen ere. Istilu ugari egoten zirela-eta, Jaungoikoa iraintzeko arriskua zegoelako.

Badirudi, arau horiek tarteko, Elosuko Bazkoak Bergarara pasatzea erabaki zutela. Bergarako Bazkoak, jatorriz, Elosuko jaiak direla esan nahiko luke horrek. Izan ere, idazki batzuen arabera, 1727an Elosuko Bazkoetako

feria herrira pasatzeko erabakia hartu zuten Bergarako Udalak. Elosuko auzotarrek ez zuten begi onez ikusi erabaki hori.

Bestalde, 1749. urtean hainbat arau onartu zituen Bergarako Udalak. Arau horiek guztiak, Jacinto Querejazu Elosuko parrokoari bidali zizkioten, mezan irakurri zitzen. Arau debekatzailak ziren guztiak; honako hauek, besteak beste: gaueko bederatzietatik aurrera ezin zutela jolastu; Bentatik Plazentzia alderako bidean dagoen bolatokia kentzeko agindua ere eman zuten; meza aurretik ere ezin zuten jolastu.

Erromeriei dagokienez ere, hainbat neurri hartu zituen Bergarako Udalak: zapi batekin dantza egin behar zuten gizon eta emakumeek, elkar ikutu ez zezaten. Elkarri eskua ematea ere debekatu egin zuten. Dantzan elkar ukitzeak Jaungoikoa iraintzen ei zuten.

Arau horiek guztiak Bergarako alkate Alonso Moiuak eman zituen, Rocaverdeko markesak.



Duela 15 bat urte berriztu zuten azkeneko ermita.

ELUR TXIKI LANERAKO GOGOZ

Duela hamabi urte Gaztetxea sortu zuten auzoan; negu partean, batik batik, non egonik ez zeukaten Elosuko gazteak. Horregatik egin zuten Gaztetxea,

Mateo Gabilondo. Elosuko Agarre baserrikoa.

«Otabetan jende mordoa etortzen zen Santutxuko erromerietara»

Mateok 73 urte dauzka eta ondo gogoratzen ditu Santutxun egiten zituzten jai eta erromeriak. Etxean, gurasoei ere entzunda ei die Santutxu baselizari buruzko kontuak. Berarekin berba egin eta jai haiei buruz gehiago jakin nahi izan dugu.

G. Zelan gogoratzen dituzu garai hartako Santutxuko jaiak?

E. Jai bat baino gehiago gogoratzen dut. Maiatzaren 3an, Santikutz egunean, meza egoten zen, eta baita iraileko Santikutz egunez ere. Maiatzeko mezan, artoa, babarruna eta beste batzuren haziak be-deinkatzen ziren, besterik ez; orduan ez zen erromeriarik egiten. Asentzio eguna ere ospatzen zen Santutxun. Orduan, bai, orduan egiten zen erromeria. Baina jai handienak *Otabetakuak* izaten ziren.

G. Jende asko etortzen al zen?

E. Bai; jende mordoa elkartzen zen *Otabetako* jaietan, baita erromerian ere. Inguruko herri eta auzo askotatik etortzen zen jendea. Sei- zazpi taberna ere jartzen ziren; gurdian ekartzen zituzten traste-



ak tabernariak. Inguru guztia tabernaz betetzen zen, eta erdian dantza egiten genuen. Soinu joleen artean subastan jartzen ziren plazak hilabete bat lehenago. Gogoratzen naiz, gainera, mutilok pezeta bat ordaindu behar izaten genuela dantza egitearren. Horiek gerra pasatu eta urte batzuetarako kontuak dira.

G. Zergaitik laga zioten erromeria horiek egiteari?

E. Gero eta jende gutxiago etortzen zenez auzoetako jaietara, soinu joleak ere, nik uste dut, interesa galtzen joan zirela, eta bertan behera utziaz joan ziren.

G. Zelan ikusten duzu bigarren mendeurrena ospatzeko erromeria egitea?

E. Oso ondo; hala ere, eguraldiak la-gundu beharko du. Ia jendea etortzen den.

G. Etxean sekula entzun duzu baselizaren historiari buruzko zerbait?

E. Bai, aitari entzunda daukat Santutxu oso aspaldikoa dela, eta frantsesek erre egin zutela. Gainera, gogoratzen naiz, nik zortzi bat urte neuzkala, berriztu egin zutela baseliza, eta erretako itxura zeukan kapiduro bat azaldu zela. Beraz, egia izango da, ezta?



Elur Txiki elkarteak antolatu du martitzeneko jaia.

eta Elur Txiki deitu zioten. Geroago, baina, iazko udaberrian, hain zuzen ere, Elur Txiki elkarteak sortu zuten. Euren helburua, auzoari bizitza handiago ematea da. Horretarako, auzoan hainbat ekitaldi antolatzen dituzte: sargardotegietarako irteerak, erregeen kalbagata eta abar.

Kontuan hartu behar dugu, Elosun ez dagoela gazte asko; gero eta ume gutxiago dago auzoan. Bertakoek alde

egin ez dezaten eta kanpokoak etorri daitezten lortzea da euren helburua.

Elur Txikiren ekimena izan da Santutxuko jai hau antolatzea ere. Ea, bada, datorren martitzeneko jaia arrakatsua izaten den. Aurrerantzean ere lanerako gogoz eta ekitaldi berriak antolatzeko asmoz azaldu dira. Beraz, ez dago kezkatzeko arrazoirik: horrelako gazte koadrilarekin, aurrerantzean ere izango du bizitza Elosuk.<

Egitaraua

Maiatzaren 1a, martitzena

- **10:30:**
 - Bergararik Elosura urbanoa (epaitegi aurrean irtengo da).
- **11:30:**
 - Altxaferoak eta kanpaiak.
 - Santutxura igoera.
- **12:00:**
 - Meza nagusia.
- **12:30:**
 - Bertsolariak eta dantzariak. Jesus Egileor Bergarako Dantza Eskola
- **14:00:**
 - Bazkari herrikoia (bakoitzak bere janari eta edariak eraman beharko ditu).
- **16:30:**
 - Herri kirolak: Bergara, Elosu, Osintxu eta Azkoitiaren artean.
- **18:30:**
 - Erromeria Lutxurdio eta Aitziberrekin.
- **20:30:**
 - Elosura jaitsiera.
- **21:00:**
 - Urbanoa Elosutik Bergarara.

maiatzaren 13ko Baskongadetako hauteskundeak

Hauteskundeak egunez egun

OSTIRALA 27:

- Kanpaina hasiera: gaueko 12etan kartelak jartzeko bilduko gara Arrano tabernan.

LARUNBATA 28:

- Jaima eta mahai informatiboak jarriko ditugu kalean eta Elorregi auzoan (jaiak).
- Gestorak-ek deituta manifestazio nazionala Donostian, arratsaldeko 17:30ean.

IGANDEA 29:

- Abiadura Handiko Trenari Stop Elkarlanean plataformak antolatuta mendi ibilaldia, 11etan plazan. Bergara-Angiozar.
- Bizikleta martxa 18:30ean plazan.

ASTEARTEA 1:

- Lanaren egun internazionala, LABek antolatutako manifestazioetara joateko deialdia egiten dugu.
- Labegaraietan (jaiak) jaima eta mahai informatiboak jarriko dugu.

OSTEGUNA 3:

- Gestorak-ek antolatutako hitzaldia. Hizlaria Iñigo Elgoro bergarra izango da. Arratsaldeko 19:00etan Kartzela Zaharrean (Gaztetxean).

OSTIRALA 4:

- Gestorak-ek antolatuta ekitaldi politikoa eta manifestazioa. "Panti eta Kanto 13 eta 14 urte espetxean, aski da!". 19:30ean plazan.

LARUNBATA 5:

- Gestorak antolatuta Martutenera martxa, goizeko 10:00etan. Autobusa egongo da.
- Mitin Nazionala Belodromoan 18:00etan.
- Herri afaria 21:30ean Artatsen.

IGANDEA 6:

- Euskara aurrera denok Herri Urratsera, Senperera.

ASTELEHENA 7:

- Zenbait urtetako borrokaldea islatzen duten "Txapa" erakusketa Pol-Polean.

OSTIRALA 11:

- Mitina plazan, arratsaldeko 20:00etan.

IGANDEA 13:

- Hauteskunde eguna. Nazio aske bat jaiotzera doa.

nazio aske bat jaiotzera doa!

BERGARAKO EH



2001-2002 ikasturterako

Bergarako ikastolen eskaintza bateratua

16 eta 20 urte bitarteko ikasleendako



BATXILERGOA

Modalitateak:

- Osasun eta natur zientziak
- Gizarte eta giza zientziak

Unibertsitaterako lau irteera:

- Zientifiko-teknikoa
- Osasun zientziak
- Giza zientziak
- Gizarte zientziak

Aurrematrikulazio epea:
maiatzaren 2tik 11ra

San Martin plaza, 4
943 76 90 71
Faxa: 943 76 91 77
bergara@ikastola.net



Mariaren
Lagundia
Ikastola

GOI MAILAKO

HEZIKETA ZIKLOAK

- Gizarte integraziorako goi teknikaria
- Haur hezkuntzako goi teknikari

Irteerak:

- Unibertsitateko ikasketak
- Lan arloan murgildu

Aurrematrikulazio epea:
ekainaren 1etik 12ra


Espoloia, 1
943 76 25 40 / 41
Faxa: 943 76 33 31
marilagikastola@euskalnet.net

Gallastegi

San Pedro, 15 ☎ 943 76 10 85



PUNTO BLANCO



PUNTO BLANCO



GAUTES

UNNO
PRINCESA
PUNTO BLANCO
AVET
GAUTES
BASKET
MAP

UDAKO BRIGADAK 2001

Mexiko, Nikaragua, Kolonbia eta Kuba



BERGARA: 943 76 21 48

BILBO: martitzen eta eguakitzetan.

94 479 07 03 (20:00-22:00)

DONOSTIA: eguenetan.

943 34 04 04 (19:00-21:00)

GASTEIZ: astelehen eta
eguenetan. 945 14 93 79

(20:00-23:00)

IRUÑEA: eguaztenetan.

948 20 60 55 (20:00-22:00)

Izena emateko epea: apirilaren 2tik maiatzaren 18ra

**KOMITE
INTERNAZIONALISTAK**

Luisek 34 urte dauzka eta txikittatik dauka ziniarekiko zaletasuna. Anaia Antoniorekin batera, Forum Cinematographe antolatu dau. Publizitate ikasketak egin zittuan. Gaur egun, Elorregiko Gurutze Gorriko koordinatzaillia da.

Luis Zabala

Noiztik antolatzen dozu Forum Cinematographe-a?

Aurten seigarren urtia izango da.

Zelatan ziniakiko horrenbesteko zaletasuna?

Ez dakit nundik datorkidan, baiña anaiak eta bixok txiki-txikittatik eduki dogu afiziño haundia.

Ze pelikulakin geratu ziñan ziharo txundittuta?

Walt Disneyrenak asko gustatzen jaten, *Eduinezuri*, esaterako.

Eta historiako ze pelikula pentsatzen jatzu onena?

Horri erantzutia eziñezkua da, hainbeste pelikula on dago!

Zuzendaririk onena?

Asko dare: Hitchcock, Ernst Lubitsch eta Max Ophuls, esaterako.

Gizonezko aktore bat?

Cary Grant, James Stewart, Henry Fonda...

Eta emakumezko bat?

Deborah Kerr, Vivien Leigh, Bette Davis, Katherine Hepburn...

Ze eratako pelikulak gustatzen jatzu?

Batez be, komedia eta melodrama klasi-kuak gustatzen jat.

Zenbat gastatzen dozu zinian?

Astian behin gutxienez juaten naiz zinera; hortaz aparte, pelikulak erosten dittut.

Ze beste afiziño daukazu?

Musikia entzutia eta irakurtzia gustatzen jat.

Ze musika gustatzen jatzu?

Musikaletakua, pelikuletako soinu bandak, eta baita musika klasikua be.

Liburu bat?

Madame Bovary eta *Lolita*.

Kirola gustatzen jatzu?

Ez, bapez; ez ikusteko, ezta praktikatzeko be.

Zela definituko ziñuke zeure burua?

Lotsatixa eta nahiko itxixa naiz; komunikatzia kostau egitten jat.

Txikittan zer izan nahi ziñuan?

Ez dot sekula bokaziño berezirik eduki.

Haurtzaroko oroitzapenik polittena?

Nere arrebria jaixo zaneakua; nik sei urte neuzkan.

Bizitzeko toki bat?

Oso haundia ez dan hiri bat.

Eta oporretarako?

New York; horrenbeste pelikulatan ikusitta, ikustera jua nahiko nuke.

Usain bat?

Gozotegittakua.

Kolore bat?

Gorrixa.

Urtaro bat?

Uda.

Amets bat?

Munduko gosia eta gerrak bukatzia.



Gozogintzan
aitzindari.

JAUNARTZEAK,
EZKONTZAK, BATAIOAK,
KINTOENTZAKO
BAZKARIAK...
Igandeetan zabalik
enkargatuz gero



ZABALA

JATETXEA • OSTATUA

Ondo pasau jaixetan!

Labegarieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az goertzik zure zerbitzura

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

Sukaldeko altzarien eta horma-armairuen fabrika



- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.
ARRASATE. 943 71 25 08


Antxintxika taldeak Euskadiko duatloi txapelketa irabazi du

Distantzia ertaineko proban nagusitu ziren Gasteizen

Begarako Antxintxika triatloi taldeak distantzia ertaineko Euskadiko duatloi txapelketa irabazi zuen zapatuan Gasteizen. Taldekako sailkapenean Antxintxikako kideak lehenak izan genituen, Eibarko triatloi taldea eta K3 J. Luck taldearen aurretik.

Zapatuan Gasteizen jokatutako proba distantzia ertaineko Euskadiko duatloi txapelketa zen, eta talde bakoitzeko hiru kirolari onen denborak hartzen ziren kontuan taldekako sailkapena erabakitzeko. Antxintxika taldetik Julen Garitano (5.a), Aitor Larrea (7.a) eta Iker Larrea (13.a) antzuolarrak izan genituen onenak. Ondoren, Aitor Rementeria (22.a), Aritz Kortabarria (47.a), Xabier Uribealgo (63.a) eta Joseba Zuzaeta (74.a) sailkatu ziren.

Partaideek (125 inguru)



Aitor Larrea, Julen Garitano, Aritz Kortabarria, Joseba Zuzaeta, Iker Larrea, Aitor Rementeria eta Xabier Uribealgo.

10 kilometro lasterka, 38 kilometro bizikletan (tartean Gasteiz eta Zaldiaran gainak zituztela) eta beste 10 kilometro lasterka egin behar izan zituzten. Eguraldi zaka-

rra izan zen probako protagonista nagusietako bat, eta horren adierazle, zapatuan jokatu beharreko afizionatuen Arabako Itzuliaren etapa bertan behera geratu zen.

Gorka Mujika eibartarrak irabazi zuen Gasteizko duatloia; bi orduan egin zuen ibilbidea. Julen Garitanok lau minutu gehiago behar izan zituen.

Julen Garitano. Antxintxika taldekoa

«Antxintxika taldean giro ezin hobea daukagu eta horrek ere laguntzen du emaitza onak lortzeko»

Julen Garitano 25 urteko antzuolarra bosgarren sailkatu zen Gasteizko duatloian. Bere hitzetan, «ni lasterkaria izan naiz beti, eta joan den urtean hasi nintzen igerian eta bizikletan serioago entrenatzen». Iaz, maiatzean, Lanzaroten jokatutako ironman proban parte hartu zuen, proba amaitzerik izan ez zuen arren. Igerian 3,8 kilometro, bizikletan 180 kilometro eta maratonia egin behar zituen, baina maratonia bukatzeko 30 kilometro falta zitzaizkiola, proba utzi behar izan zuen.

Egunero hiru bat orduz entrenatzen da, eta Antxintxika taldean dagoen giroa azpimarratu du: «Horrek ere laguntzen du emaitza onak lortzeko». Domekan, Elgoibarko duatloian izango dira Antxintxika taldekoak, eta lehenbiziko triatloia ekainaren 9an izango dute, Arrasaten. Handik astebetara, Euskadiko txapelketa jokatuko da Zarautzen. Julenek bi proba horietan txukun aritzeko asmoa du. Bestalde, abuztuan Danimarkako ironman proban parte hartzeko aukera aztertzen dihardu.



Muguruza eta Gutierrez Deba arroko finalean

Ander Muguruza eta Igor Gutierrez bikote bergararrak senior mailako Deba arroko txapelketako finala jokatu du Aretxabaletako Errasti anaien aurka domeka eguerdian, Antzuolako pilotalekuan. Muguruzak eta Gutierrezek, finalerdietan, Gandiaga-Bengoetxea bikote eibartarrari irabazi zioten. Eibarren jokatuak joaneko partiduan 21-22 irabazi zuten bergararrek, eta joan den apirilaren 10ean, Bergaran, 22-8 nagusitu zitzaizkien eibartarrei.



Gutierrezek eta Muguruzak partidu bakarra galdu dute txapelketan.

GIPUZKOAKO TXAPELDUNAK

Hala ere, domekan, Anderrek eta Igorrek ez dute partidu erraza izango, atxabalarrak Gipuzkoako txapel-dunak baitira. Reyes Azko-

tia entrenatzailearen arabera, «nire ustez, Errasti anaiak dira faborito, baina txapela eskuratzeko itxaropena dugu».

Muguruza eta Gutierrez Debagoieko lehenak izan

dira. Errasti anaiei 22-20 irabazi zieten Bergarako pilotalekuan. Errasti anaiek Elgetako bikotea kanporatu zuten finalerdietan. Domekako jaialdia 10:30ean hasiko da.

Frontenis txapelketa

Maiatzaren 5etik aurrera, binakako frontenis txapelketa jokatu da Angiozarren. Txapelketa Debagoieneko kirol zirkuiturako puntuagarria izango da. Izena emateko epea maiatzaren 3an bukatuko da. Argibideak Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 zenbakian.

Karate txapelketa

Domekan, hilak 29, infantil mailako Bergara Hiria karate txapelketa jokatu da pilotalekuan, 10:00etan. Atsedendian, esgrima erakustaldia egingo da.

Kirol Zerbitzuko karneta bailaran baliagarria izango da bi hilabetez

Udaleko Kirol Zerbitzuko bazkide txartela duten herritarrek Debagoieneko kirol instalazioak erabili ahal izango dituzte maiatzean eta ekainean, etorkizunean bailara osoan baliagarria izango litzatekeen bazkide txartelaren bideragarritasuna aztertzeko proba gisa.

Erabaki horrek, gehienbat, igerilekuetako erabilitzaileei eragiten die. Hortaz, datozen bi hilabeteetan, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñatiko igerilekuak erabiltzeko aukera izango dute Bergarako Kirol Zerbitzuko bazkideek. Beste herri bateko instalazioetara joanez

gero, igerilekuetako sarrean bazkide txartela utzi behar dute, eta irteterakoan itzuliko diete, txartela egiaz-tatu eta gero. Abendutik martxora, barruko igerilekuak itxita egon zirenean, Kirol Zerbitzuak antzeko akordioa egin zuen lehen aipatutako herriekin.

karteldegia

FUTBOLA
Bergara-Eibartarrak
 Lehen mailako gazteak
 Domeka. 11:00. Ipintza
Bergara-Ordizia
 Ohorezko mailako gazteak
 Domeka. 17:30. Ipintza

SASKIBALOA
Bergara-Beasain
 Kadete mutilak
 Zapatua. 12:00. Kiroldegia
Bergara-Kevian Sport
 Senior mutilak
 Zapatua. 16:00. Kiroldegia

Masterreka 19, behea. 943 76 46 53.

Ametz

TXINAKO MEDIKUNTZA TRADIZIONALA
 Shirley Garcia, akupuntore profesionala, 781 zkia.
Antsietatea, stressa, tabakoa, depresioak, gizentasuna

Tratamendu pertsonalizatuak eta ondorio gabeak.

Bergararrok epaitegian zer esanik baduqulako... Epaitegian euskaraz! Gure eskubidea da!

Jardunen, kultura etxean, AEKn, Pol-Polen edo Arranon eskatu orria eta sina ezazu.

Justizia administrazioa euskalduntzeko plataforma



Labegarrietako futbito txapelketa

EMAITZAK

A MULTZOA

Eri-Irubide	5-1
Apa Oxemai-Amoskibar	2-6
Fac-Buya	4-2
Bar Ugarte-Errotagain	2-11
Pagomendi-Canalejas	4-4
Torrekua-Irubide	6-1

B MULTZOA

Amilotx-Kanpazar	2-12
Aterpe-Aluminios Kresala	4-4
Cine Bank Irimo-Etengabe	6-1
Aluminios Kresala-Ortzi	2-5
Vacalouras-Bayer	3-5
Pinturas Bergara-Agirrebeña	0-3
Ortzi-Kanpazar Harrobia	4-9

C MULTZOA

Guadalest-Patxaran Team	0-3
-------------------------	-----

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

10:30: Apa Oxemai-Kanpazar	Antolaketa
17:30: Agirrebeña-Alum. Kresala	Shaktale
18:30: Shaktale-Mongatxurak	Buya
19:30: Buya-Amoskibar	Mongatxu.

DOMEKAN, BARRUAN

9:30: A Ze Flaxa-Artusamak	Guadalest
10:30: Bar Ugarte-Guadalest	Patxaran T.
11:30: Patxaran Team-Aterpe	Bildurbarek
12:30: Bildurbarek-Amilotx.	Aterpe
16:00: Irubide-Eri	Bayer
17:00: Bayer-Cine Bank Irimo	Pagomendi
18:00: Fac-Pagomendi	Agirrebeña
19:00: Amoskibar-Agirrebeña	Etengabe
20:00: Etengabe-Shaktale	Amoskibar

MARTITZENEAN, BARRUAN

16:00: Bayer-Canalejas	K. Piperrak
17:00: K. Piperrak-Alum. Kresala	Ortzi
18:00: Buya-Ortzi	Cine Bank
19:00: Torrekua-Cine Bank Irimo	Vacalouras
20:00: Mongatxurak-Vacalouras	Torrekua

ARGI!

P. Bergara kanporatua

Agirrebeña taldearen kontrako partidura ez aurkezteagatik, Pinturas Bergara taldea txapelketatik kanporatu dute. Beraz ez da ez liga ezta kopako kanporaketetan izango. Kopan Errotagainen aurka jokatu behar zuenez, Errotagain hurrengo kanporaketarako sailkatu da.

Liga amaitzeaz

Astebukaeran liga txapelketako azken partiduak jokatu eta kopa txapelketari hasiera emango diote. Ligako play-offen zozketa eguaztenean izango da, kultura etxean, 18:30ean.

mahoneroak



UNAI ARANA
BKEko jokalaria

Nire ustetan, zapatuan, merezimendu osoz irabazi genion Durangori Agorrosi-nen. Lehen zatia gurea izan zen eta gol aukera mordo bat galdu genuen. Bizkaitarrek egin zuten lehenbiziko gola partiduaren hasieran. Gola jaso arren, gure jokoa egiten jarraitu genuen eta gol aukerak bata bestearen atzetik heldu ziren. Hala ere, ate aurrean ez ginen fin aritu. Lehen zatiaren erdialdean Josetxok banakoa egin zuen, baina, gutxienez hiru bat gol egiteko merituko egin genituen.

Bigarren zatia hasi bezain laster, Errastik 2 eta 1ekoa egin zuen, eta hortik aurrera gure jokoak behera egin zuen, batez ere atzera egin genuelako, abantaila galtzeko beldurrez behar bada. Bigarren zatia nahiko parekatua izan zen. Partidua amaitzeaz zegoela, 3 eta 1ekoa sartu nuen atezainaren aurrean bakarrik geratu ondoren.

Hiru partidu geratzen dira, eta hirurak irabazita ere, zaila daukagu mailari eusteko. Dena den, partiduz partidu joatea izango da onena.

Errotagain eta Artusamak

A multzoan Errotagainek eskuratu du lehen postua Bar Ugarteri irabaziz; Artusamak C multzoko liderra da, Mongatxuraki 4 eta 2 irabazi eta gero.



GORA eta BEHERA



Amilotx eta Mongatxurak

B multzoan Amilotxek erraz galdu zuen sasoi betearen dagoen Kanpazar taldearen aurka (2-12). C multzoan, Mongatxurak-ek 3. postura behera egin du.

SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Errotagain	55	22
2. Bar Ugarte	55	22
3. Bildurbarek Opel Lam	46	22
4. Amoskibar	39	21
5. Bar Canalejas	35	22
6. Pagomendi	34	22
7. Fac	30	22
8. Eri	22	21
9. Irubide jatetxea	21	22
10. Buya	11	21
11. Torrekua	10	21
12. Apa Oxemai	4	22

B multzoa

	P	J
1. Ortzi	42	19
2. Kanpazar Harrobia	41	20
3. Aterpe	39	20
4. Amilotx	31	20
5. Aluminios Kresala	29	19
6. Bayer	29	19
7. Vacalouras	15	19
8. Agirrebeña jatetxea	15	19
9. Cine Bank Irimo	11	19
10. Etengabe	4	20
-	-	-
-	-	-

C multzoa

	P	J
1. Artusamak	37	16
2. A Ze Flaxa	36	16
3. Mongatxurak	33	15
4. Guadalest	27	16
5. Komando Piperrak	25	16
6. Shaktale	17	15
7. Txipiron	16	16
8. Patxaran Team	8	16
-	-	-
-	-	-
-	-	-
-	-	-

Informazio hau, ondorengo babesleei esker:



Irizar 2
☎ 943 76 14 95

**JAUJA
KIROLAK**



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

Otsein Saria

Durangoren aurkako partiduan honako hauek nabarmendu ditugu:
Josetxo Lizarralde.....3 puntu
Igor Errasti.....2 puntu
Markel Egaña.....1 puntu
 Etzeko partiduak bakarrik hartzen ditugu kontuan.



GASTON Y DANIELA



Kruz Gallastegi 3 ☎ 943 76 07 37

BERGARA

Inglesina



Banatazile ofiziala

**Pizza aukerarik
zabalena!**



Artekalea 1, BERGARA.

**Asteburuetan
etxez-etxeko
zerbitzua**

**ETXERA ERAMATEKO
EGUNEKO MENUA ere
badaukagu!**

ENTZALADAK

ENTZALADA MISTOA. 650
ARROZ ENTZALADA. 675
OILASKO ENTZALADA. 700
PASTA ENTZALADA. 675
GANBA KOKTELA. 750
PIPER ETA ANTIXOA PINTXOA ROKEFORT SALTSAZ. 800



PIZZAK

MARGARITA (Oregonoa, piperbeltza, albaraka). 825
TIPULA. 900
FUNGHI (Txanpinoiak). 1.025
BEGETALA (Kalabazina, tipula, esparragoa). 1.025
PEPERONI (Pikillo piperra, berakatza). 1.175
ROKEFORT. 1.000
4 GAZTA (Gazta nahasketa). 1.125
NAPOLI (Antxoak, olibak). 1.000
TONNO (Atuna). 1.025
DI MARE (Ganbak, antxoak, muskuiluak, atuna). 1.150
IZOKINA (Izokin ketua, tipula). 1.175
PROSCUITO (York urdaiazpikoa). 1.050
MEXIKARRA (Okela pikatua eta berakatzarekin). 1.125
4 STACCIONE (York, alkatxofak, txanpinoiak). 1.125
BOLOGNESA (Okela pikatua). 1.125
EULALIA (Piper berdeak, hirugiharrea). 1.125
BASERRI (Txorizoa, hirugiharrea, arraultza). 1.175
ARTEKALE (Okela pikatua, arraultza,
pikillo piperrak). 1.175
HONDOAK. 1.550
TROPICALA (Piña, York urdaiazpikoa). 1.125



**Telefono
zenbakia:**

943 76 25 37

PASTA

SPAGHETTI BOLOGNESA. 925
SPAGHETTI CARBONARA. 925
SPAGHETTI MINA BERAKATZAREKIN
ETA PIKANTEAREKIN. 925
FUSILLI ROSSA. 950
TAGLIATELLE. 950
RIGATONI 4 GAZTA. 950
UKONDOA ESPINAKA SALTSAREKIN. 950
OKEL eta GAZTA RAVIOLIAK. 1.000
NIDOS AL PESTO. 950
LASAGNA. 1.000
BARAZKI eta OKEL KANELOIAK. 950
KALABAZIN BETAOK. 950



EBaki hemendik eta eraman beti aidea erotsatsi zure hozkailuan!





MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

bonofotoa

Non daude bi irudiotan ikusten diren iturriak?

galde debalde

1. Zenbat kontsulta jaso ditu Bergarako turismo bulegoak Aste Santuan zehar?

- A- 483
- B- 320
- C- 328

2. Zein da Euskadiko Txapelketa irabazi duen Bergarako triatloi taldea?

- A- Lokatza
- B- Antxintxika
- C- Zaleak

3. Zenbat atal izango ditu Martzial Agirrerri buruzko monografiak?

- A- Bi
- B- Hiru
- C- Lau



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

Aurreko aleko saria **Ignacia Garairrentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak, Ignacia! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:

Bonofotoa: **Pertxa, 1976**

Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-C**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: 2: 3:

Izen-deiturak:

Telefonoa:

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Frias
esne osoa, litroa
85 PTA!

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Juan Tamariz magoaren 'Magia Potagia' Novedadesen

Juan Tamariz magoa Bergaran izango dugu maiatzaren 4an. *Chanta tachan* telebistako saioarekin horren famatua egin zen magoak *Magia Potagia* ikuskizuna eskainiko du Novedades aretoan, maiatzaren 4an, egubakoitza, 22:30ean.

Munduko karta ilusionista hoberenatarikoa izango dugu herrian maiatzaren 4an. Juan Tamariz 1942an jaio zen Madrilan. Zientzia Fisiko ikasketak egin zituen arren, magian murgilduta ibili da bizitza osoan. Hamalau urte besterik ez zituenean, hainbat magia ikuskizunetan parte hartu zuen. Garai hartan pailazo ere aritzen zen. Hastapen haietatik hona, hainbat sari jaso ditu Tamarizek, mundu osoan. Horrez gain, munduan zehar eskaini ditu ikuskizunak, eta magiari buruzko



Juan Tamariz magoak 25 urtetik gora daramatza magia egiten.

VERTIGO

hainbat liburu idatzi ditu. Baita film laburrak eta telebista saioak egin ere; askok gogoratuko duzuen *Chanta tachan*, telebista saioa esaterako.

'MAGIA POTAGIA'

Ia bi ordu iraungo du *Magia Potagia* ikuskizunak: truku zahar eta berriak egingo ditu, eta ikusleak parte hartze-

ra gonbidatu ere bai. Karta jokoez gain, espiritismoari eskainitako bigarren zatia ere badu Tamariz magoaren saioak.

Ile zuri luze eta txisteradun magoa ikusteko aukera izango da, beraz, maiatzaren 4an Novedadesen. Baita aurrez aurre haren karta eta magia jokoa ikusteko ere.

Euskararen gaineko hitzaldi sorta antolatu du Jardunek

Jardun euskara elkarteak euskararen gaineko hitzaldi sorta antolatu du maiatzerako. Hiru berbaldi izango dira guztira. Lehenengoa maiatzaren 2an izango da: Badihardugu taldeak Deba arroko euskalkiaren gainean jardungo du. Hilaren 16an, Alfonso Mtz. Lizarduikoak *Euskal zibilizazioa* izango du hizpide. Hirugarren eta azken berbaldia maiatzaren 30ean izango da: Koldo Zuzok eskainiko du, eta izenburua honakoa da: *Euskararen sendabela-rrak*.

Berbaldi guztiak kultura etxean izango dira, 19:00etatik aurrera.

Bergarako artearen historia San Joxepe elkartearen eskutik

Bergarako artearen historia oinarri hartuta, hiru hitzaldi antolatu ditu San Joxepe erretiratu eta pentsioduenen elkarteak; guztiak Miguel Altunan, 19:30ean: maiatzaren 3an, Alberto Santana historialariak Base-ria Bergaran XVI. mendetik XX.era izango du hizpide. 10ean, Jesus Gil Massa historialariak Arte zibila, XVIII. mendean herria sortu zenetik hona jorratuko du. 17an, M^{re} Jesus Aranburu historialariak Arte erlijiosoa XVIII. mende arte gaia-ekin emango dio bukaera sortari..

Martzial Agirre eskultorearen bizitza eta obra liburu batzeko asmoa du udalak

Monografiak 75-100 orri izango ditu eta bi ataletan banatuta egongo da: batetik, XIX. mendeko artista bergararraren bizitza; eta bestetik, obra.

Monografiaren helburua da artistaren bizitza eta obra aztertzea, ez baitago Martzial Agirreari buruzko azterketa orokor-sakonik. Hari buruz orain arte idatzitakoa gutxi da, eta argitara emandako hainbat datu ez dira zuzenak. Bestalde, argazkiak ere izango ditu liburuak, 40 inguru.



Martzial Agirre.

Monografia egiteko ideia bi historialarik (Larraitx Arretxea eta Mikel Lertxundi) aurkeztu diote uda-

lari. Euren iritziz, argitaratu gabeko informazio ugari eta interesgarria dago Agirrearen inguruan.

ABENDUAN KALEAN

Dagoeneko aurkeztu dute monografikoaren proiektua udalean, eta gobernu batzordeak interes eta aberasgarri iritzi dio. Monografiaren originala amaitu ondoren, udalak egileei lanaren eskubideak erosiko dizkie, proiektuan aurrez ikusitakoa betetzen baldin bada. Ondoren kaleratuko luke.



Bergarako lagun koadrila, 1958

Oraingo asteko erretratu zaharrean bergarar koadrila bat ikus dezakezue. Argazkia orain dela 43 urte ateratakoa da, eta hor dugu gazte koadrila, dotore-dotore jantzita. Ez daukagu argazkian inguruko informazio askorik, baina baliteke ezkontzaren baten atarian eginikoa iza-

tea, Eibarko Mayora argazkilariak atera baitzuen eta, antza denez, ezkontzetan eta beselako ospakizunetan ibiltzen zen erretratuak egiten. Hauek dira argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Sabas Igartua, Manuel Altolagirre, Jesus Ruiz de Azua "Kapaña", Jose Arangu-

ren, Narciso Begiristain "Nartxi" eta Isidro Etxaniz.

Makurtuta: Jesus Ezenarro, Jesus Kalboetxeaga eta Luis Etxaniz.

Argazkia: Jesus Kalboetxeaga

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldeko erreforma, pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



Zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



Manufacturas LARRAÑAGA

- Lan-babeserako artikulua
- Seinaleztapena
- Lanerako jantziak

Leizeaga 1.
Tf. / faxa 943 76 59 53.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Urrun heldu al daitezke enpresak garraio zerbitzu aurreratu bat gabe?



EZ

Begiratu Europa berriari eta merkatu bakarra ikusi. Herrialde bakar bat balitz bezala erantzuteko ahalmena duen garraio sare batekin.

Begiratu etorkizunean pentsatzen duten enpresei. Ikusi jada eskatzen ari direla lojistika eta garraiorako aukera berriak. Eta erantzun egokiena eman.

Begiratu ekonomia berriari. Eta ikusi garraioa eta distribuzioa ezinbestekoak izango direla. Nola hitzegin genezake Internet-en bidezko salerosketetaz, primerako garraio zerbitzu bat gabe?

Hauek dira, **Guipuzcoana, Deutsche Post Euro Express** taldean sartzera bultzatu duten arrazoiak, Europako garraio eta distribuzio sare aurreratu baten partaide izateko: **Euro Express**.

Emaitzak bidean daude.





Ibarretxe da baietza

EUSKO ABERTZALEAK

